

ALTUBE-TAR SEBER JAUNAREN MENDEURRENA Euskaltzaindiaren IX. Biltzarra Arrasaten

Jaunak: 1979.urteko atarian gaude. Eta dakizuten bezala, urte hori Seber Altube jauna jaio zeneko ehungarren urtea dugu. Bidezko denez, Euskaltzaindiak nahi du urte muga hau ospatu. Eta ospatu ere ez nolanahi, hark landu zituen alorre-tako lanak berari eskeiniaz baizik.

Gure asmoa hau zen, bada. Haren omenez bi Biltzar egi-tea: bat, udan, Gernikan, atzerriko euskalariei deituz; eta beste bat, heldu den urteko abenduan, Arrasaten, euskal gramatikari buruz.

Baina badirudi gehiegitxo dela, eta ez dagoela asti handirik kanpoko euskalarien biltzar hori prestatzeko. Behar-bada, Topaketa moduko zerbait egin ahal izango da zenbaitzurrekin, eta hori hasiera bat bezala har daiteke, gero astiroago, hemendik bi urtera edo, kanpoko euskalarien Biltzar ospetsu bat ospatzeko. Edozein modutan ere, Jagon-saileko buru den Juan San Martin jauna arduratuko da Topaketa hunen arazoaz. Zer egin daitekeen etab. ikustea, bere esku uzten da, bada.

Beraz, ni hemen Gramatika Biltzarraren arazoari lotuko natzaio xoilki.

Biltzar hau, esan dudan bezala, Arrasaten izango litzateke.

Egunak ere hautatu dira: 1979. urteko Abenduaren 20tik 23ra.

Batzordeen ezarketa. Biltzar hunek ez du izango, Bergarakoak izan zuen bezala, Soziologi eta Estadistika Batzorde-

rik. Beraz, aski da bi Batzorde jartzea: Hizkuntz batzordea eta Antolakizun batzordea.

L. Mitxelena eta euskaltzainburugoko jaunekin hitz egin ondoan, hunako izen hauk proposatzen dira batzordeok osatzeko:

Antolakizun Batzorderako. Buru: José M.^a Satrustegi. Idazkari: Jose L. Lizundia. Eta bi hauetaz gainera, Euskaltzaindiaren aldetik beste jaun hauek osatuko dute batzordea: Mikel Lasa, Juan Jose Zearreta eta Imanol Laspiur-ek. Gainera Arrasateko ordezkari batzuekin gehituko da batzorde hau. Arrasaten bertan izango du batzorde hunek bere bulegoa: Biltzarraren antolakizun bulegoa.

Hizkuntz Batzorderako. Batzorde hau bi atalez osatua jartzen da: a) Kontseilariak b) Eragileak.

a) Kontseilarietarako jaun hauk proposatzen dira: L. Mitxelena buru, Jean Haritschelhar, Pierre Lafitte, Alfontso Irigoyen eta L. Villasante.

b) Eragileetarako, berriz, Patxi Goenaga, J.A. Letamendia, J.A. Mujika, R. Badiola eta Pedro Pujana.

Batzorde idazkaria: Letamendia, eta Idazkari ordea: M.^a Pilar Lasarte. Batzorde hunek Donostiako Ordezkaritzan izango du bere bulegoa.

Heldu den Otsaileko lehen egunetan egin beharko dute beren lehen bilera Batzorde biek.

Biltzarreko gaiak. Orokorki hartuz, euskal Gramatika izango da Biltzarreko gaia. Gai hau, ordea, zabalegia izanik, Fonologia eta Ortografi arazoak kanpoan utziko dira. Beraz, Morfologia eta Sintasia hartzen dira gaitzat. Hobeki esateko, eremu hortako zenbait puntu.

Batzordeetako jaunei, nahiz Euskaltzaindiko guztiei eta problema hauetaz arduratzen diren gainerako guztiei ere eskatzen zaie ekar ditzatela, arren, Biltzarrean aztertzeko egokiak iruditzen zaizkien gai batzuk. Edozeinek daki euskal gramatikan anitz gauza dagoela ondo aztertu, argitu eta finkatu gabekorik. Epe bat jartzen da, beraz, gaiak aurkezteko. Epea: Otsaileko 23a (Euskaltzaindiko batzar eguna).

Aurkezten diren gaiak ikusi ondoan, Hizkuntz Batzordeak egingo du hitzaldien eta hizlarien programaketa.

Gainerakoan, Bergarako Biltzarrean bezala, Arrasatekoan ere egon daitezke bai hitzaldiak eta bai txostenak ere. Hitzaldiak enkarguz eginak izango dira eta ondo mugatutako puntu berezi batzuei buruz. Hizkuntz Batzordeak enkargatuko ditu hitzaldiok. Txostenak, berriz, nahi duenak egin ditzake gogoko duen gaiari buruz, baina beti ere Biltzarreko eremu barruan egotekotan.

Azkenik, Bergarakoan bezala, Batzorde orokor eta koordinatzailea ere izango da. Beronen burua, Aita L. Villasante. Eta Idazkaria, J.L. Lizundia. Batzordekideak, berriz, L. Mitxelena, J.M. Satrustegi eta J.A. Letamendia izango dira.

Bilbon, 1978, abenduak 29.